

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **26/2019 Foru Agindua, abuztuaren 12koa, baimentzen duena Inmaculada Galerón Iglesias andrearen behin-behineko izendapena, Dulantziko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan**

Dulantziko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, udaleko idazkari Vanessa Domínguez Casal andrea oporretan ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretako funtzionario Inmaculada Galerón Iglesias andrearen behin-behineko izendapena egitea.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Inmaculada Galerón Iglesias andrea Dulantziko Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, zeregin horretan jardun dezan 2019ko uztailaren 22tik abuztuaren 19ra bitartean (biak barne), titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Dulantziko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 12a

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SÁENZ**